

PORTUKO INSTALAZIOAK OKUPATZEKO ESKABIDEA	
Zer da? Zertan datza?	Portuko instalazioak (lurzorua edo ur-lamina) okupatzeko baimena eskatzean datza, hainbat jarduera mota egiteko.
Nork eska dezake?	Behar bezala egiaztatutako edozein pertsona fisikok edo juridikok edo haren legezko ordezkariak.
Aurkeztu beharreko dokumentazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Portuko instalazioak okupatzeko eskabide-inprimakia. • Eskabide-orrian eskatzen den dokumentazioa (jarduera deskribatzen duen memoria, NAN, etab.).
Non izapidetzen da?	<ul style="list-style-type: none"> • Ahal dela, eskabidea egiten den portuko kapitaintzan, jendeari arreta emateko ordutegian (kontsultatu helbideak). • Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako bitartekoen bidez.
Betebehar ekonomikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Eskabide-izapideak ez dakar betebehar ekonomikorik. • Baimena emateak berekin dakar, ekitaldia egin aurretik, fidantza gordailutzea eta dagozkion tarifak ordaintzea.
Prozesuaren edo ebazpenaren epea	Ekitaldiaren eguna baino hilabete lehenago eskatu beharko da, gutxienez.
Lege-esparrua	<ul style="list-style-type: none"> • 2/2018 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena. • 1/2007 Legegintzako Dekretua, EAeko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. • Beste araudi batzuk.
Oharrak	Eskabidea baloratu ondoren, eskatzaileari portu-esparrua okupatzeko baldintzak bidaliko zaizkio, onar ditzan.
Onarpena	Onarpen- edo ukatze-ebazpena
Jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura	Portu-esparrua okupatzeko baldintzen onarpena sinatu ondoren, fidantza eratu beharko da, eta eraketaren banku-ziurtagiria eta aseguruaren egiaztagiria entregatu beharko dira.
Ondorengo izapideen laburpena	Ekitaldia amaitu ondoren, jardueraren azken txostena egingo da, ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko, eta fidantza itzuliko da edo behin-behinean edo behin betiko atxikiko da.